



2011KO URTARRILAREN 12KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako urtarrilaren hamaikan, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2010eko abenduaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 19 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA BERROGEITA HAMAIRU (218.684,53 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

San Benito Ikastolari.- Ziburuko "Pierres Larzabal" ikastetxe berria egiteko gastuei aurre egiteko Kultura Batzordetik hirurehun (300 €) euroko dirulaguntza ematea proposatzen da. Dirulaguntza hau 2011ko urtarrilaren 2an ikastola honen alde egin zen Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldiko gastuak ordaintzeko da.

Tokiko Gobernu Batzordeak, gaia aztertu ondoren, proposamena onartzea erabakitzen du.

Lazkaotxiki musika eskolari.- 2011ko aurrekontuan aurrikusitako partidatik eta bere gastuei aurre egiteko aurrerapen gisa lau mila eta ehun (4.100 €) euro aurreratzea proposatzen da Kultura Batzordetik.

Tokiko Gobernu Batzordeak, gaia aztertu ondoren, proposamena onartzea erabakitzen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko seiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

